

**825/2023 EBAZPENA**, 2023ko maiatzaren 3koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak emana, “Hiru minutuan” lehiaketako deialdia onetsi eta dagokion gastua baimentzen duena.

Ikusirik Unibertsitate Proiektioko, Kulturako eta Dibulgazioko errektoreordetzaren proposamena.

Ikusirik Aholkularitza Juridikoaren txostena.

Ikusirik Kontabilitate Atalak kreditua badela ziurtatzeko emandako egiaztagiria eta Unibertsitatearen kontu-hartzaitzak egindako fiskalizazioa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuen 40. artikuluan esleituta dauzkadan eskudantziak betez,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenbizikoa.- Onestea “Hiru minutuan” lehiaketako 2023. urterako deialdia, ebazpen honen I. eta II. eranskinetako oinarrien eta inprimakien arabera. Deialdi honekin, gradu eta master amaierako lanen edukiak publiko ez-espezializatuari hobekien azaltzea lortzen duten graduko eta masterreko ikasleak sarituko dira.

Bigarrena.- Ebazpen honek sortutako gastua onestea, 2.900 euro osotara, partida hauen kargura, 2023/0000002 eta 2023/0000371 espedienteetan egindako kreditu-atxikipenekin:

- 305200/0610/141.07 Jarduera Kulturaletarako beste lansari batzuk, 450,00 euro.
- 305200/0610/227.02 NUPetik kanpoko hizlariak eta profesionalak, beste jarduera batzuetarako, 450,00 euro.
- 305200/0610/480.05 Beste transferentzia batzuk, 2.000,00 euro. Sariak 1.000 euroko dotazioa izanen dute bi modalitateetako bakoitzean: lehenbiziko, bigarren eta hirugarren saria, 500, 300 eta 200 euro, hurrenez hurren.

Hirugarrena.- Bestetik, baimena ematen da publikoaren sari gisa liburu elektronikoaren irakurgailu bat emateko (Ebook SPC Dickens Light Pro 6/8GB/MICRSD). Unibertsitate Zabalpenaren Atalak erositako dagoeneko, 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura, 118,58 euroan (BEZa barne).

Laugarrena.- Ebazpen hau helaraztea Ikasleen Gaietarako, Enpleguko eta Ekintzaitzako Errektoreordetzari, Unibertsitate Proiektioko, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetzari, Komunikazio Atalari, Kontabilitate Atalari eta Aurrekontu Atalari.

Bosgarrena.- Agintzea argitaratu daitezela ebazpen hau eta eranskinak Nafarroako Unibertsitate Publikoren iragarki-ohol elektroniko ofizialean eta Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean.

Seigarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta, bere aurka, zilegi da berraztertze errekurtsoa aurkeztea errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Epaitegietan, bi hilabeteko

epean, biak ere Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoko ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Iruñean, 2023ko maiatzaren 3an



Ramón Gonzalo García  
ERREKTOREA

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## “HIRU MINUTUAN” LEHIAKETAREN OINARRIAK

### 2023ko DEIALDIA

Errektoreak emandako 2023ko maiatzaren 3ko **825/2023** Ebazpenaren I. eranskina

Nafarroako Unibertsitate Publikoak apustu sendoa egin du zientzia eta teknologia zabaltzeko eta hedatzeko, zerbitzatzen duen gizarteari laguntzeko beste modu bat den aldetik. Horregatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak zientzia eta teknologia zabaltzeko eta hedatzeko sustatzen duen politikaren barnean, oso komenigarritzat jo da ikasleak saritzea baldin eta gauza badira espezialista ez den jendeari azaltzeko zergatik den garrantzitsua beren lana eta zertan laguntzen dioten gizarteari hari esker. Horren bidez, kontzientzia piztu nahi da ikerketaren arloko etorkizuneko profesionalen artean ongi jabetu daitezen zeinen garrantzitsua den beren lana zabaltzea eta herritarren kultura zientifikoan laguntzea.

Aipatu helburuak lortzeko xedez, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, 2012an lehen aldiz, “Tesiak hiru minutuan” lehiaketarako deia egin zuen. Hiru kategoriatan eman zen saria: doktoretza-tesi baten komunikazio hobereana, master amaierako lan baten komunikazio hobereana eta ikasketen amaierako proiektu baten komunikazio hobereana.

Lehenbiziko bi sariak Nafarroako Unibertsitate Publikoko azken ikasmailetakoa ikasleentzat eta prestakuntzan ari ziren ikertzaileentzat ziren, eta Ikerketako Errektoreordetzak, Komunikazio Zerbitzuak (Kultura Zientifikoaren Unitatearen bidez) eta Hezkuntza Berrikuntzaren Goi Mailako Ikastegiak sustatu zituzten. Hauxe zen lehiaketaren muina: parte-hartzaileek denbora tarte mugatu batean azaldu behar zuten beren ikerketaren edo ikasketen amaierako proiektuaren garapena, modu egokian eta edozeinek ulertzeko moduan.

Ikusirik bai lehen bi edizioetan sortutako interesa eta bai izandako arrakasta ere, eta lehiaketaren eragina aipatzeko asmoz, egokitzen jo zen hurrengo bi edizioetan (2014koan eta 2015ekoan) Campus Iberus osatzen duten lau unibertsitateetan prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileek parte hartzea. Hala ere, gradu eta master amaierako lanen kategoriak espresuki Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleentzat gelditu ziren.

Azkenik, “Tesia hiru minutuan” lehiaketaren antolaketa Campus Iberusi dagokio, eta horregatik Nafarroako Unibertsitate Publikoak beste izen bat jarri zion lehiaketari, “Hiru minutuan”, eta lehiaketa Unibertsitateko graduko eta masterreko ikasleentzat antolatzen du.

#### **Lehenbizikoa – Deialdiaren xedea**

“Hiru minutuan” izeneko lehiaketak desafio bat jartzen die parte-hartzaileei, hots, masterreko edo graduko azken ikasmailetakoa ikasleei: denbora tarte mugatu batean azaltzea, modu egokian eta edozeinek ulertzeko modukoan, zein den beren ikasketen amaierako lanaren nondik norakoa. Ikertzaile gazteen lana gizarteari hurbiltzea da lehiaketaren helburua, eta, aldi berean, haiengan zientzia eta teknologia zabaltzeko eta hedatzeko gogoia piztea. Horregatik, espezialista ez den jendeari jendaurreko ekitaldi batean ideiak komunikatzeko gaitasuna sarituko da.

Halaber, aurreko edizioetan bezala, lehiaketa hori gehiago zabaltzeko nahi da, Nafarroako Radio Nacional de Españarekin (RNE) finalera iritsitako lanak emateko lortutako akordioari esker.

### **Bigarrena – Finantzabidea**

Deialdi honek 2.900 euroko aurrekontua du guztira. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2023ko gastuen aurrekontuko partiden kargura ordainduko dira:

- 2023/0000002 esp.:  
305200/0610/141.07 Jarduera Kulturaletarako beste lansari batzuk, 450,00 euro
- 2023/0000371 esp.:  
305200/0610/227.02 NUPetik kanpoko hizlariak eta profesionalak, beste jarduera batzuetarako, 450,00 euro  
305200/0610/480.05 Beste transferentzia batzuk, 2.000,00 euro

eta sari mota horien dotaziorako erabiliko dira, baita epaimahaikoen lansariak ordaintzeko ere.

### **Hirugarrena – Sarien modalitateak**

Zazpi sari emanen dira: modalitate bakoitzean hiru, eta beste bat publikoak erabakia. Hauek:

- A.- Master Amaierako Lanak: hiru sari (lehenbizikoa, bigarrena eta hirugarrena) master amaierako lanaren komunikazio hoberenei. **500, 300 eta 200 euro, hurrenez hurren.**
- B.- Gradu Amaierako Lanak: hiru sari (lehenbizikoa, bigarrena eta hirugarrena) gradu amaierako lanaren komunikazio hoberenei. **500, 300 eta 200 euro, hurrenez hurren.**
- C.- Finaleko publikoak erabakitako saria, aurkezpen hoberenari emana. Saria: **liburu elektronikoen irakurgailu bat.**

Diruzko sariei % 15eko atxikipena aplikatuko zaie, Erregelamenduaren 78. artikulua arabera. Ez da atxikipenik izanen 300 eurotik beherako sarietarako. Gauzazko sarietarako, 300 eurotik beherako balioa duenez, ez da konturako diru-sarrerarik egonen.

### **Laugarrena – Izangaiek bete beharrekoak**

Izangaiek honakook bete behar dituzte modalitate bakoitzean:

1.- A modalitatean (Master Amaierako Lanak), Nafarroako Unibertsitate Publikoan beren lana 2022-2023 ikasturtean aurkeztu dutenek izanen dute parte hartzeko aukera, betiere deialdi honen seigarren oinarrian eskaerak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino lehen egin badute defentsa.

2.- B modalitatean (Gradu Amaierako Lanak), Nafarroako Unibertsitate Publikoan beren lana 2022-2023 ikasturtean aurkeztu dutenek izanen dute parte hartzeko aukera, betiere deialdi honen seigarren oinarrian eskaerak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino lehen egin badute defentsa.

3.- Lehiaketan parte hartzeko eskatzen duten unean, modalitateetarako izangaiek egiten ari diren master amaierako lanaren edo gradu amaierako lanaren zuzendariaren oniritzia beharko dute.

4.- Lehiaketan parte hartzen dutenek ematen duten datu edo informazio orok zabaltzeko modukoa izan behar du. Ikerketak konfidentziasun-hitzarmenen baten mendekoak badira, parte-hartzaile bakoitzak kontrastatu beharko ditu lehiaketako parte-hartzearen edukiak hitzarmenak ukitutakoekin. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez du bere gain hartuko hori ez betetzeak ekar ditzakeen arau-hausteen ardura.

5.- Ikasleek konpromisoa hartzen dute lehiaketa egiten den egunean bertan izateko. Parte-hartzea presentziala izanen da nahitaez (ez da onartuko bideokonferentziaz edo horrelako sistemen bidez egitea).

### **Bosgarrena – Lehiaketaren garapena**

Lehiaketa 2023ko azaroan egingen da.

Antolatzaileek, parte-hartzaileen kopurua kontuan hartuta, saio bakar batean egin dezakete dena, edo aldez aurreko hautaketa fase bat ere antolatu deialdiko modalitateen arabera.

Ikasle bakoitzak hiru minutu izanen ditu bere aurkezpena egiteko. Honakoak azalduko ditu: zein den bere ikerketaren gaia, zer arazo identifikatu duen, bere lanak nola laguntzen duen irtenbide bat bilatzen eta nolako eragina izanen duen bere lanak gizartean oro har edo, zehazki, komunitate akademikoan eta ikertzaileen komunitatean.

Aurkezpena prosaz eta gaztelaniaz egin behar da. Lagungarri modura, diapositiba estatiko baten proiektioaz baliatzen ahalko da, baina ez beste ezertaz. Ezin da erabili beste ezein elementu (esaterako, bideo edo audio artxibategiak), ezta bestelako osagarririk ere, adibidez, musika tresnak, laborategiko materiala edo jantziak. Ez da zilegi, bestalde, bertaratzen den jendearekiko elkarreraginaz baliatzea.

Automatikoki bazterturik geldituko dira gehienezko denbora gainditzen dutenak, hots, hiru minutu.

Azken fasea bidez grabatuko da, eta irabazle gertatzen diren aurkezpenak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webgunean egonen dira ikusgai. Jendaurreko saioak komunikabideetan ere eman litezke, baita Interneten bidez ere.

Lehiaketaren finalera iristen direnek minutu batera laburtu beharko dute beren lana, irratiz emateko. Aurkezpenak RNE Nafarroan grabatuko dira, eta irrati publiko horretan emanen dira “Píldoras Científicas: espacios de divulgación de la investigación de la UPNA” (Zientzia-pilulak: NUPEko ikerketa zabaltzeko tarreak) izeneko saioan.

Lehiaketa egin aurretik, prestakuntza-saio batera joateko aukera emanen zaie parte-hartzaileei. Prestakuntza-saio horretan, jendaurrean mintzatzeko trebetasunak, oratoria teknikak, eta komunikazioa eta irrati-hizkuntza landuko dira.

### **Seigarrena – Eskaerak aurkeztea**

Sariketa honetan parte hartu nahi dutenek eskaera bat aurkeztu behar dute horretarako ematen den inprimakia betez. Inprimakia Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunearen bidez eskuratu daiteke ([www.unavarra.es/unidadculturacientifica](http://www.unavarra.es/unidadculturacientifica)), deialdi honen II. eranskinean ageri da, eta,

bertan, argi adierazi beharko da sariaren zer modalitatetan parte hartu nahi duen lehiatzaileak.

Deialdi honetara aurkezteko eskaerak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erregistro elektronikoa aurkeztuko dira, Unibertsitatearen egoitza elektronikoa bitartez.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko urriaren 11ko 14:00etan amaitu.

“Hiru minutuan” lehiaketara aurkezteak deialdiaren oinarriak erabat onartzea dakar berekin.

### **Zazpigarrena – Eskaerak tramitatzea**

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitateak deialdi honetako laugarren oinarriko 1., 2. eta 3. ataletan zehaztutako betebeharrak betetzen ote diren aztertuko du. Eskatzaileek aski dute betebeharrak betetzen dituztela esatea, eta ez da beharrezkoa izanen dokumentu bidez egiaztatzea, non eta Kultura Zientifikoaren Unitateak ez dien eskatzen egiaztatzeko.

Tramitera onartutako eskatzaileen eta ezarritako betebeharrakoren bat ez betetzeagatik baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrenda Nafarroako Unibertsitate Publikoko Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratuko da. Eskatzaileei 5 egun balioduneko epea emanen zaie, behin-behineko zerrenda aipatu webgunean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, atzemandako gabeziak konpontzeko edo dagokien dokumentazioa osatzeko. Ezarritako epean egin ezean, eskaera ezin izanen da tramitera onartu.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate Proiektzio, Kulturako eta Dibulgazio errektoreordeak Unibertsitateko errektoreari igorriko dio onartutakoen behin betiko zerrenda, ebazpen baten bidez onetsia izan dadin. Ebazpena Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratuko da.

Interesdunek, ebazpen horren aurka, zilegi dute berraztertzeko errekurtsua aurkeztea Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Ebazpena aipatu webgunean jartzen bada ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoak oinarri honetan ezarritako behin-behineko eta behin betiko onartutakoen ebazpenak argitaratuko ditu, beren ikasleen artean ahalik eta zabalpen handiena lortzeko egokien jotzen duen tokian edo bitartekoaren bidez. Argitaratze horiek ez dira kontuan hartuko onartutakoen ebazpenen aurka erreklamatzeko edo errekurtsua aurkezteko epea zenbatzeari begira.

### **Zortzigarrena – Ikasle sarituen betebeharrak**

1. Saridunek jasotzen duten diru kopurua nahi bezala erabiliko dute, eta 2023ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko zaie.
2. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, araudi indardunak ezartzen duenarekin bat, behar diren atxikipenak eginen ditu sarien diru kopuruan zerga modura. Aplikatu beharreko atxikipena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 78.



artikuluak ezartzen duenez, % 15 da. 300 eurotik beherako sariak ez dute atxikipenik izanen. Gauzazko sariak, 300 eurotik beherakoak direnez, ez dira konturako diru-sarreratzat hartuko.

3. Deialdiaren oinarriak ez betetzea, edo datuak ezkutatzea, aldatzea edo haietan iruzur egitea erabakia atzera botatzeko zioak izan daitezke, eta, hala gertatuz gero, sarietatik hartu den dirua itzuli beharko da.

### **Bederatzigarrena – Sarien epaimahaia**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate Proiektzioko, Kulturako eta Dibulgazioko errektoreordea izanen da epaimahaiko burua, eta epaimahaia beste lau kidek osatuko dute. Kide hauek errektoreak izendatuko ditu, aipatutako errektoreordeak proposaturik. Gutxienez bi kide komunikazioko eta zabalkuntza zientifikoko adituak izanen dira, Nafarroako Unibertsitate Publikotik kanpokoak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate Proiektzioko, Kulturako eta Dibulgazioko errektoreordeak eskatuta eratuko da epaimahaia, eta horretarako deia egingen du. Unibertsitate Proiektzioko, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetzak, bestetik, azken fasean epaimahaiaren lana errazteko behar diren kudeaketak egingen ditu.

Epaimahaiak erabakiko ditu sariak, gradu amaierako lanen modalitatekoak eta master bukaerako lanen modalitatekoak, baina ez publikoarena.

### **Hamargarrena – Balorazio irizpideak**

Epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat parte-hartzaileak baloratzeko garaian:

- 1.- Ulermena. Puntuazioa 1etik 10 puntura bitartekoa izanen da. Aurkezpena jendeak lana uler dezan lagungarria ote den hartuko da kontuan. Horretarako:
  - Lanaren funtsaren eta helburuen adierazpen garbia egin behar du.
  - Ikerketaren muina zein den adierazi behar du.
  - Aurkezpena hurrenkera logiko batean eman behar du.
- 2.- Inplikazioa. Puntuazioa 1etik 10 puntura bitartekoa izanen da. Aurkezpena jendearen jakin-mina pizteko egokia ote den hartuko da kontuan. Horretarako:
  - Ez dio garrantzirik kendu behar ikerketari, eta ez du sinplifikatu behar.
  - Lehiatzaileak bere lanarekiko grina transmititu behar du.
  - Jendearen arreta bereganatu behar du, eta hari eutsi.
- 3.- Komunikazioa. Puntuazioa 1etik 10 puntura bitartekoa izanen da. Aditua ez den jendearentzat lanaren gaia eta haren garrantzia modu egokian komunikatzen ote dituen hartuko da kontuan. Hau da, parte-hartzaileak:
  - Behar adina baliatu behar du ikus-kontaktuaz eta ahozko erregistroaz, erritmoari eutsi behar dio eta bere buruarekiko segurtasuna erakutsi.
  - Ez du erabili behar jargoi zientifikoa, terminologia beharrezkoa azalduko du, eta aurrekariak azalduko ditu zenbait puntu argitzeko.
  - Behar bezala banatuko du denbora.

- Aurkezpenean, diapositiba estatiko bat izanen du lagungarri, diapositiba argia, zehatza eta irakurtzen erraza, baina hizketari baliorik kendu gabe.

### **Hamaikagarrena – Publikoaren saria**

1. Publikoaren saria finalera joandako publikoak emanen du, botazioz.
2. Ikusle gisa finalera joandako pertsona bakoitzak boto bakar bat eman dezake, master amaierako lanetarako nahiz gradu amaierako lanetarako.
3. Publikoaren boto gehien lortzen dituenak lana izanen da publikoaren sariaren irabazlea.
4. Bi izangaik edo gehiagok berdinketa izanez gero, zozketaz erabakiko da irabazlea.

### **Hamabigarrena – Sariak ematea**

1. Lehiaketaren azken fasea egiten den saioan berean emanen da epaimahaiaren eta publikoaren erabakiaren berri.
2. Epaimahaiak Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari bidaliko dio sariak emateko proposamena, lehiaketaren helburuak betetzeari eta aurkezpenen kalitateari buruzko txosten arrazoituarekin batera. Errektoreak behin betiko ebazpena emanen du, eta, bertan, sariak emateko erabakia eta saritutako izangaien zerrenda ezagutaraziko ditu.
3. Zilegi da sariak eman gabe uztea epaimahaiaren iritziz egin behar bada edo izangairik ez badago.
4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen behin betiko ebazpena, sariak emateari buruzkoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean emanen da argitara. Halaber, Unibertsitate Proiektzioko, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetza ebazpenari ahalik eta zabalpen handiena ematen saiatuko da. Interesatuek, ebazpen honen aurka, zilegi dute berraztertzeko errekurtsua aurkeztea Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

### **Hamahirugarrena – Argitalpena**

Deialdi honen oinarriak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoz ofizialean eta Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratuko dira.

Deialdi hau aplikatzeko emandako gainerako egintzak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratuko dira.

Oinarriak iragarki-ohol elektronikoz ofizialean argitaraturik ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kultura Zientifikoaren Unitatearen webgunean argitaratzea izanen da deialdi honen epeak eta tramiteak betetzeari begira kontuan hartuko den publizitate ofizialeko tresna bakarra. Dena dela, deialdiak ahalik eta zabalpen handiena izan dezan, Unibertsitateak, modu osagarri eta ez ofizialean, abisuak posta elektronikoz eman liezazkieke interesdunei, edo jakinarazpenetarako egokitzen jotzen duen beste edozein bidez ere.



## Hamalagarrena – Datuen babesa

Deialdi honetan parte hartzeak NUPen ikasketa amaierako lan bat (IAL) aurkeztu duten eta deialdian parte hartu nahi duten pertsonen datu pertsonalak tratatzea ekarriko du berekin.

Datu hauek tratatuko dira: izena, deiturak, NANA, helbide elektronikoa, telefonoa eta aurkeztutako proiektua. Azkenean hautagaiak beka jasotzen badu, kontu korrontearen zenbakia edo ordaintzeko beharrezkoa den beste daturen bat ere tratatuko da.

Era berean, lehiaketaren finala grabatzeko eta irratian eta Interneten zabaltzeko asmoa dago, eta horrek berekin dakar hautagaiaren ahotsa, irudia eta IALari buruzko informazioa tratatzea eta iragartzea. Tratamendu hori deuseztatzeko edozein eskaera informazio-erreseina honen arabera aztertuko da, eta, onetsiz gero, NUPek zentzuzko ahalegin teknologikoak egitera mugatuko du bere jarduna. Bestetik, gogoan izan behar da nahitaez errespetatu behar dela datuak babesteko araudia IALA prestatzean eta argitaratzean.

Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa bete behar ditu.

Zure datu pertsonalak, beraz, deialdi hau tramitatzeko eta gauzatzeko tratatuko dira, interes publikoko xedeei jarraikiz (ikasketa amaierako lanen zabalpena) eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.e) artikuluekin bat etorritik. Halako xedeen oinarri juridikoa zabalkunde akademikoa da, Unibertsitatei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa ezarritakoaren arabera.

Zilegi da datuak eskuratzeko eta zuzentzeko eskubidea eta bestelako eskubideak erabiltzea, datuak babesteko araudiari jarraikiz, [delegado.protecciondatos@unavarra.es](mailto:delegado.protecciondatos@unavarra.es) helbidera idatzita.

Azken aukera gisa, Datuak Babesteko Espainiar Agentziari aurkeztu ahalko zaio erreklamazioa, hemen:  
<https://sedeagpd.gob.es/sedeelectronica/web/vistas/formReclamacionDerechos/reclamacionDerechos.jsf>

## Hamabosgarrena – Errekurtsoak

Interesdunek, deialdi honen eta bere oinarrien aurka, zilegi dute berraztertze errekurtsoa aurkeztea Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoa argitaratu eta biharamunetik kontaktatu hasita.

**825/2023 Ebazpenaren II. eranskina****IZENBURUA: “Hiru minutuan” lehiaketaren deialdia**

Lehen deitura

Bigarren deitura

Izena

NANa

Telefonoa

Helbide elektronikoa

Zer modalitatetara aurkezten den:

Gradu amaierako lanak

Master amaierako lanak

Titulazioa

Izenburua

Zuzendaria

Irakurketaren eguna

Aditzera ematen dut master edo gradu amaierako lanaren zuzendariaren baimena daukala sariketa honetan parte hartzeko.

Aditzera ematen dut hitzaldian emandako datuek eta informazioak ez dutela deusen konfidentzialtasuna urratzen.

Eguna

Sinadura

Non aurkeztu den

Interesdunak inprimaki honetan adierazitako datu pertsonalak Nafarroako Unibertsitate Publikoak erabiliko ditu datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik. Tratamendu horrek bi oinarri ditu: batetik, interesdunaren baimena, eta, bestetik, inprimakia bete behar izatearen helburuak, inprimakiaren testuan berean adieraziak.

Datuen tratamendua Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz egin beharra dago. Interesatuak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta datuen babesari buruzko beste zenbaitetarako, betiere delegatuari idatziz: [delegado.protecciondatos@unavarra.es](mailto:delegado.protecciondatos@unavarra.es)

Interesdunak inprimaki honetan adierazitako datu pertsonalak Nafarroako Unibertsitate Publikoak erabiliko ditu datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik. Tratamendu honek bi oinarri ditu: batetik, interesdunaren baimena, eta, bestetik, inprimakia bete behar izatearen helburuak, inprimakiaren testuan berean adieraziak.

Datuen tratamendua Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz egin beharra dago. Interesatuak eskubidea du datuak sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta datuen babesari buruzko beste zenbaitetarako, betiere helbide hau erabiliz: [delegado.protecciondatos@unavarra.es](mailto:delegado.protecciondatos@unavarra.es).